

UNIBERTSITATE KALITATEAREN BERMEARI BURUZKO POSIZIONAMENDUA



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



Idazkaritza Exekutiboaren eginbidea, zeinaren bidez aditzera ematen baita posizionamendu hau 2018ko apirilaren 22an egindako 62. Batzar Nagusi Arruntean onartu zela, lehendakaritzaren oniritziarekin.

José María Rosell Bueno

*Presidente de la Coordinadora de
Representantes de Estudiantes
de Universidades Públicas /
Unibertsitate Publikoetako
Ikasleen Ordezkarien
Kordinakundearen idazkari
exekutiboa*

Pablo Alcaraz Martínez

*Presidente de la Coordinadora
de Representantes de
Estudiantes de Universidades
Públicas / Unibertsitate
Publikoetako Ikasleen
Ordezkarien Kordinakundearen
lehendakaria*

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Gobernantza kalitate-prozesuetan	3
3. Kalitatea bermatzeko prozesuetan parte hartzea	4
3.1. Barne prozesuak	4
3.2. Kanpo prozesuak	7
4. Ondorioak	8



1. Sarrera

Unibertsitate-kalitatea Bolonia Prozesuaren hasiera-hasieratik sortutako kontzeptua da. Definizioa zenbait ministerio-adierazpenen bidez taxutzen joan da, Bergenen (2005) Kalitatea Bermatzeko Estandar eta Irizpide Europarrak sortu ziren arte (ESG¹, ingelesezko sigletan). Estandar horiek unibertsitate, goi mailako hezkuntza-zentro eta kalitatea bermatzeko agentzia guztiek oinarri izan behar dituzte tituluak sortzeko eta ebaluatzeko prozesuak bideratzeko.

Erevango 2015eko Ministro Konferentzian ESG berriak onartzean sortu den garapen berritik abiatuta, Europako Unibertsitate Eremuak (EUE) ikaslea bere ikaskuntza-prozesuan ahaldunduko duen bide baterantz jo beharko du, herritar kritikoa, autonomo eta berritzaileak lortzeko.

Azken urteotan, kalitatearen bermeak garrantzi handia hartu du Europan eta nazioartean, eta norabide eztabaidagarria izan du unibertsitatearen helburuei dagokienez; izan ere, parametro ekonomikoak definitu dira unibertsitatearen kalitatea ebaluatzeko irizpide nagusi gisa, eta kalitatearen bermea goi mailako hezkuntza merkatuaren arabera aldatzeko tresna bihurtu da, ez gizarte-premien arabera aldatzekoa.

Hori dela-eta, ikasleen kolektiboko kideok errezeloz ikusten dugu unibertsitatea eraldatzeko tresna izan zitekeena, azkenean merkataritza-mundura bideratzeko modu bat izaten bukatu baitu, interes ekonomikoen zerbitzura dagoen beste enpresa bat balitz bezala.

Era berean, aipatzekoa da 180 ECTSko graduak onartu zenetik kalitatearen bermeak gaur egun Espainian bizi duen egoera ("3+2 sistema" esaten zaie). 1393/2007 Errege

¹ The Standards and guidelines for quality assurance in the European Higher Education Area. Informazio gehiago: <http://www.enqa.eu/index.php/home/esg/>



Dekretuak ez du titulu horiek berritzeko eperik aurreikusten, eta, beraz, arazo hori Errege Dekretua aldatzean konpondu beharko da.

Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2018ko martxoaren 13ko ebazpen baten ondorioz, aldaketa-prozesu bat ireki da kalitatea bermatzeko prozeduren esparruan. Horrela, egiaztapen instituzionaleko sistema baterantz goaz, zeinaren helburu bakarra titulazioen kalitatea handitzea izan behar baita, burokraziaren kaltetan. Beraz, CREUPeko kideok funtsezkotzat jotzen dugu gogoeta bat egitea unibertsitateetan kalitatearen barne bermerako sistemak ezar daitezen, informazioa lortzeko eta aztertzeko prozedura eraginkorrak ezartzearen, baita hobetzeko proposamenak egitearren ere. Hala, ikasleak izan beharko dira panorama berri horren muin. Horretarako, presentzia handiagoa eskatzen dugu ikastegietako kalitatea bermatzeko batzordeetan, baita egiaztapen hori ebaluatzen duten kanpoko kalitate-agentzietan ere.

CREUPeko kideok kalitatearen bermea honela definitu nahi dugu: prozesu sistematizatuen multzoa, goi mailako hezkuntza ondare kultural, intelektual eta zientifikoa sortzeko eta transferitzeko tresna sozial hobea bihurtuko duena eta gizartearen aurrerapenerako eta garapenerako ere balioko duena.

2. Gobernantza kalitate-prozesuetan

Unibertsitatearen gobernantzaren barnean, kalitate-prozesua funtsezko zutabea da gardentasuna bermatzeko, baita ondare kultural, intelektual eta zientifikoaren sorrera eta transferentzia bermatzeko ere. Horretarako, kolektibo guztien parte-hartzea bermatu behar da, berdintasunez, demokratikoki eta partaidetzaren bidez. Parte-hartze horrek ebaluazio-prozesu erreala, osoa eta objektiboa bermatzen du.

Halaber, ebaluazioak, kalitatea bermatzeko irizpideek ezartzen duten bezala, ikasle guztiei eman beharko die hitza, baita haien ordezkarietara ere. Horretarako, kexa eta iradokizunak egiteko, gorabeherak jakinarazteko edota zorionak emateko postontzien ikusgarritasuna eta irisgarritasuna bermatu behar dira, eta ikasleari haien berri eman



behar zaie. Ildo beretik, kalitatea bermatzeko batzordeak gehiago irekitzea sustatu behar da, kalitatea ebaluatzeko eta eztabaidatzeko benetako zentro bihur daitezten.

Ikasleak unibertsitateko organo eta prozesu guztietan parte hartzea kalitatearen bermeari aplikatzen zaion filosofiaren oinarritzko nozioa da; izan ere, ikasleek parte hartzen ez badute, ezin izanen da inola ere lortu ebaluazio erreala, osoa eta objektiboa.

Sistemak ez badu prozesuan inplikaturako eragileen parte-hartzea sustatzen, mugatu egiten du horiek prozesuan duten eragina, eta, ondorioz, ez da nahikoa parte-hartzerik izaten behar bezala funtzionatzeko. Gainera, paradoxa bat sortzen da: errua ikasleen kolektiboari egotzen zaio, inkestei ez erantzuteagatik, nahiz eta akatsa hasieratik haien ikuspegia kontuan ez hartzea izan.

3. Kalitatea bermatzeko prozesuetan parte hartzea

3.1. Barne prozesuak

Unibertsitateek kalitatea bermatzeko sistema oso heterogeneoak dituzte, eta, gehienetan, kalitatea bermatzeko kanpoko prozesuak onartu ahal izateko izapide hutsak izaten dira, prozesu horiek egotea exijitzen baitute. Horren aurrean, unibertsitateek kalitatea bermatzeko sistema funtzional, eraginkor, objektibo eta demokratikoak egiteko erantzukizuna dute, eta norberak hautatu behar du sistema horietara sartzea, ez hala esleitu diotelako. Irakaskuntzan, baliabideen kudeaketan nahiz mantentze lanetan eta tituluen kudeaketan parte hartzen duten eragile guztiek hartu behar dute parte sistema horietan.

Hori lortzeko, organo instituzionalizatuak sor daitezke, beren erabakiek eragin nabarmena izan dezaten ukitutako alderdiengan. Modu horretan, eragin bermatzailea izan dezakete beste gobernantza-organu batzuetan, sailetan esaterako; izan ere, gaur egun, organo horietan ikasleen parte-hartzea azalekoa dela ikusten dugu, eta beren presentzia lekukotasunezkoa baino ez da. Aitzitik, aktiboki parte hartu beharko lukete irakasle-gidak ebaluatzeko prozesuan, irakasgaien koordinazio horizontala eta bertikala



bilatuz bai ikasmilak osatzen dituzten irakasgaien artean, bai jakintzagaiak osatzen dituzten irakasgaien artean, baita, aldi berean, azken horien artekoa ere titulu osoaren barnean.

Gainera, garrantzitsua da kalitatearen bermerako kultura bat garatzea, non irakasleak prest egonen baitira ikasleen iritziekin benetako *feedback*aren alde lan egiteko, baliabide informalen bidez, eta ez soilik erakundeen kanalen bidez. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da ikasleak erdigune dituen ikaskuntza, kalitatearen bermearen ikuspegi berri bat, Erevango 2015eko Ministro Konferentzian sortua.

Ikaskuntza mota horretan, ikasleek parte hartzeaz gain, irakasleek atzean utzi behar dute informazio-transmisore soilaren rola, eta orientatzaile eta dinamizatzaile gisa aritu.

CREUPeko kideak bat gatoz ikasleak unibertsitateko hezkuntza-sistemaren erdigune gisa erakusten dituen ikuspegi horrekin, eta, horregatik, unibertsitateei eskatzen diegu azter dezatela nolako ikuspegia duten ikasleek haien erdigune dituen ikaskuntzaren alderdi hauei buruz:

- Ikasleak bere ikaskuntza-prozesu eta emaitzekin duen poztasuna eta motibazioa.
- Ikasketa-plan batean aukerako nahikoa irakasgai hautatzeko aukera.
- Irakasleek ekintza aktibo batzuk egin behar dituzte ikaskuntza-prozesuak ikasle bakoitzaren arabera ezartzeko, haien hasierako ezagutzaren, premien eta motibazioen arabera.
- Ikasteko prozesua irakaslearen eta ikaslearen artean bakarrik gertatzen ote den, edo ikasleen beraien artean horizontalki gertatzen den.
- Norberaren ikaskuntzaren garapena kontrolatzeko behar diren tresnak eta prestakuntza izatea.
- Zeharkako trebetasunen garapena, hala nola pentsamendu kritikoa eta informazioaren eta komunikazioaren kudeaketa.
- Irakasgai bera ikasteko bide eta modu desberdinak hautatzeko eta definitzeko aukera.



- Irakasgai beraren barnean ikasgai-zerrendaren parte bat hautatzeko aukera.
- Irakaskuntza-gidetako ikaskuntza-emaizten definizioan eragiteko aukera.
- Ikasleak eta irakasleak elkarrekin hitz egiten eta hausnartzen ote duten ikaskuntza-prozesuei eta -emaiztei buruz.

Unibertsitateek irakaskuntzaren berrikuntza sustatzeko mekanismoak ezarri behar dituzte. Lanean jarraitu behar dugu arestian aipatutako alderdiak objektiboki definitzeko, hau da, orokortasunetan ez erortzeko, eta, ikasleak eragile diren aldetik beren iritziak jarrera aktiboagoa izan dezan unibertsitateetako kalitatea bermatzeko sistemen ebaluazioen barnean, azken batean horixe defendatzen baitu ikasleok erdigune dituen ikaskuntzak.

Kalitatea Bermatzeko Estandar eta Irizpide Europar horietako batek gardentasuna du ardatz; zehazki, 2. irizpideak hau agintzen du: “Erakundeek informazio argia, zehatza, objektiboa, eguneratua eta erraz eskuratzeko modukoa argitaratu behar dute beren jarduerari eta programei buruz”. Horregatik, unibertsitateko irakaskuntzan, informazioaren gardentasuna eta eskuragarritasuna funtsezko tresnak dira, unibertsitateko komunitateko eragile guztiek hartzen baitute parte barne kalitatea bermatzeko prozesuetan. Alde horretatik, dokumentuak argitaratzeaz gainera, eskuragarri eta ulergarri ere egin behar dira. Ondorioz, bermatu egin behar da ikasleek duten eskubidea kalitatea bermatzeko sistemaren emaitzak eta, bereziki, irakaskuntzaren eta ikasketa-planen ebaluaziorako inkesten emaitzak eskuratzeko, eta aukera izan behar dute horren inguruan hartutako neurrien berri izateko.

Horrela, unibertsitateak kalitate-maila handiagoa izatea lortzen dugu, kontuan hartuta nolako ikuspegia duten ikasleek irakaskuntzaren emaitzak definitzeko eta lortutako aurrerapenak egiaztatzeko prozesuari buruz, eta zer neurritan eta nolako inplikazio-mailarekin definitu dituzten.

CREUPeko kideon ustez, kalitatearen bermea unibertsitateetatik bertatik abiatu behar da, kalitatearen kanpoko ebaluazio-agentziei beren lana ezertan ukatu gabe. Horregatik,



urteko jarraipen-autotxostenak egiteko orduan unibertsitateek ahalegin handiagoa egin behar dutela aldarrikatzen dugu.

Era berean, barne azterketako prozesu horietan ikasleek zeregin aktiboa izan dezaten defendatzen dugu, haien iritzia kontuan har dadin urteko hobekuntza-planak proposatzeko.

3.2. Kanpo prozesuak

Bolonia Prozesua hasi, Europako Unibertsitate Eremua eratu eta Kalitatea Bermatzeko Estandar eta Irizpide Europarrak sortu zirenetik, kalitatea bermatzeko kanpoko prozesuak gorantz ari dira. Prozesu horiei esker, gai gara gure tituluak Europako kalitate-estandarrak betetzen ote dituzten ikusteko.

Kanpoko kalitate-agentzien egungo ikuspegia kontrol-erakunde batena da. Ikuspegi hori atzean utzi behar dugu, eta, horren ordean, kalitatea bermatzeko agentziek unibertsitateei orientabidea eta adorea ematera bultzatu, irakaskuntza etengabe hobetu dezaten, baita inplikaturako kolektibo guztien ordezkariak aktiboak duten barneko kalitate-sistema benetan funtzionalen ezarpena sustatu ere.

Era berean, kalitatea bermatzeko prozesuetan kanpoko kalitate-agentziek lan objektiboa, egiazkoa eta eraginkorra egin dezaten, erakunde publiko eskudunek independentzia administratiboa eman behar dute, nor bere baliabideak kudeatzeko eta erabiltzeko finantzaketa nahikoarekin, baita jarduteko independentzia ere.

Horretarako, aldi berean, ezinbestekoa da unibertsitatean kanpoko ebaluatzaile gisa esku hartzen duten kolektibo guztien erabateko inplikazioa, ikasleena batez ere, irakaskuntzaren partaide nagusiak baitira, eta behar bezala ebaluatzen ahalko baitute unibertsitateak ikasleen iritzia jakiteko dituen bitartekoak egokiak ote diren, zenbateraino den eraginkorra unibertsitateak inkesten emaitzei emandako erantzuna eta benetan laguntzen ote duen hobetzen irakasleek irakaskuntzarako dituzten gaitasunak. Beraz, unibertsitateek ikasleen parte-hartzea bermatu behar dute beti,



ikasleei behar bezala jakinaraziz zer-nolako prozesuak gauzatzen dituzten kalitate-agentziek. Horretarako, ikasle interesdunei zuzenean eman beharko zaie ikastegian egiten diren entzunaldi irekiko prozesuen berri.

Era berean, ebaluazio-panelen bisita presentzialak ahalik objektiboenak izan behar dira. Unibertsitateek elkarrizketa pertsonaletan eragin interesaturik ez dutela ziurtatu behar da. Ikasleei zuzendutako elkarrizketen kasuan, ikastegiak berak ikasleak hautatu beharrean, ausaz aukeratu behar dira elkarrizketa-prozesuaren aurreko panelean ezarritako irizpideak betetzen dituzten ikasleen artetik; izan ere, baliabide egokia da balorazioak ikuspegi holistiko eta objektibo batetik lortzeko.

Kalitatea bermatzeko agentzien prozesuetan ikasleek duten partaidetza ahal bezain beste hedatu behar da beren jakintza-arloan, ebaluazio instituzionaletan eta egiaztapen- eta segimendu-ebaluazioetan parte har dezaten.

Unibertsitateetako irakaskuntza etengabe hobetzeko helburuari jarraikiz, derrigorrezkoa izan behar da titulazioen segimendua egitea egiaztapena berritzeko aldien artean.

CREUPeko kideon ustez, beharrezkoa da bai autonomia-erkidegoetako kalitatea bermatzeko kanpoko agentziek eta bai kalitatea bermatzeko Espainiako agentziak tituluak ebaluatzeko erabiltzen dituzten ebaluazio-egiturak eta -prozesuak homogeneizatzea, Espainiako unibertsitateetako ikasle guztiek ezaugarri berberak izan ditzaten estatu osoan. Gainera, kalitatea bermatzeko agentziek bermatu egin behar dute gauzatzen dituzten prozesuetako dokumentazioak eskuragarriak direla.

4. Ondorioak

Kalitatea bermatzeak irakaskuntzaren kalitatea hobetzea izan behar du ardatz, eta, horrekin batera, onartu behar da ikaslearen zeregina eta iritzia funtsezkoak direla horretan eragiten duten prozesu guztietan, bai barneko prozesuetan, bai kanpokoetan.



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas

**UNIBERTSITATE KALITATEAREN BERMEDI
BURUZKO POSIZIONAMENDUA**

Gure ustez, ez da kalitate-agentzien ardura unibertsitateek barne kalitatea bermatzeko prozesuak izan ditzaten zaintzea. Erantzukizun hori unibertsitate bakoitzaren berezko motibazioari egokitu behar zaio; beraz, unibertsitateek beraiek arduratu behar dute sistema hobetzeaz, horietan parte hartzen duen eragile bakoitza kontuan hartuta.

Gainera, ezinbesteko eta funtsezko betekizuntzat jotzen dugu ikasleek benetan parte hartu ahal izatea. Horretarako, informazioa ez ezik, prestakuntzarako baliabide eta tresnak ere izan behar dituzte, iritzi sendo eta funtsatuak eraikitzeko eta unibertsitatearen kalitatea hobetzen laguntzeko behar den trebakuntza lor dezaten.

Kalitatea bermatzeko kanpoko prozesuei dagokienez, gure ustez, kalitate-agentziek, Espainiakoek nahiz autonomia-erkidegoetakoek, egitura eta prozedura homogeneousak izan behar dituzte ikasleek berme berberak izanen dituztela ziurtatzeko.

Azkenik, CREUPeko kideok azpimarratu nahi dugu ikasleen parte-hartze justu eta aktiboa beharrezko urratsa dela kalitatea bermatzeko prozesuek unibertsitate-sistema etengabe eta benetan hobetzeko balio dezaten, bai ikaslearen ikuspegitik, baita irakaslearen ikuspegitik ere.